



## 9. KOSTUEN EGITURA

Hauek dira gure gastu nagusiak:

Lehenik eta behin, autoak eta haien lizentziak. 3 autorekin hasiko gara, eta, beraz, 3 VTC lizentziarekin, jardun ahal izateko. Etorkizunean zerbitzua gehiago behar izanez gero, zabaldu egingo dugu. Lehen esan bezala, zerbitzu hori emateko unerik onena da, GTI lizentziak enkantean jartzen ari baitira. Autoak Dacia Spring dira eta bakoitzak 19.590€ balioko luke eta VTC lizentzia bakoitza 50.000 €ingurukoa izango litzateke.

Bestalde, hiru eguzki-plaka handi eta txiki bat behar ditugu. Plaka fotovoltaikoak ordaintzeko laguntzak Saltoki enpresak emango dizkigu. Eguzki plaken eta horien instalazioaren baturak Saltokiren laguntzengatik jasotako balioa kentzen digu, eta guztira 38912€ kostatuko litzaiguke.

<https://www.portaldeayudas.com/buscador-subsvenciones/autoconsumo-y-almacenamiento-con-energia-renovable-pais-vasco/>

[https://www.portaldeayudas.com/wp-content/uploads/AY0019-Calculo\\_de\\_la\\_Ayuda.pdf](https://www.portaldeayudas.com/wp-content/uploads/AY0019-Calculo_de_la_Ayuda.pdf)

Gastu finkoak hasieran baino ez dira egongo, denboran zehar dena aldatzen joango baita. Izan ere, eguzki-plaken eta ingurumenerako kaltegarria ez den garraioa ematearen ondorioz, gasolinaren gastuak aurreztuko ditugu, ibilgailuak eguzki-energia duten kargagailu elektrikoek bidez kargatuko baitira. Hiru kargagailuen prezioa 700€ izango litzateke, hau da, 2100€.

Lehen esan bezala, Balmaseda eta La Herrera artean dagoen lursail batean gure bulegoak eta aparkalekuak eraikiko ditugu. Oraindik ez dugu prezio zehatza adostu, baina 100.000 eurokoak izango lirateke. Ez diegu langileei bakarrik ordaindu behar. App-a sortuko digun ingeniari informatiko bat ere kontratatuko dugu. Hau doan aterako zaigu gure kontaktuen artean zegoelako.

Egin behar den hasierako inbertsio handia dela eta, dirua bilduko da aurrezpen, udalaren eta beste enpresa batzuen laguntzei esker, enpresa txiki berrientzat (eguzki-plakekin eta haien instalazioekin lagunduko digutenak). Inbertsioa 329.000€-koa izango da.